



**BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEA
FEDERACIÓN VIZCAINA DE FÚTBOL**

ESTATUTUAK

BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESTATUTUAK

AURKIBIDEA

	OR.
I. TITULUA .- Xedapen orokorrak.	4
II. TITULUA .- Federazio-lizentziak eta lehiaketa ofizialak	7
I. kapitulua .- Federazio-lizentziak	7
II. kapitulua .- Lehiaketa ofizialak	9
III. TITULUA.- Federakundearen organoak	10
I. kapitulua .- Xedapen orokorrak	10
II. kapitulua .- Biltzar Nagusia	12
I. atala .- Biltzar Nagusiaren osaketa	13
II. atala .- Biltzar Nagusiko kideen hautapena	14
III. atala.- Biltzar Nagusiaren funtzionamendua	14
III. kapitulua .- Presidentea	17
IV. kapitulua .- Zuzendaritza Batza	19
V. kapitulua .- Barne Araubidearen organoak	22
I. atala .- Idazkari nagusia	22
II. atala .- Diruzaina	23
III. atala.- Kirol zuzendari teknikoa	23
IV. atala.- Aholkularitza juridikoa	24
VI. kapitulua .- Organo teknikoak	24
I. atala .- Kirol Teknikarien Lurralde Batzordea	25
II. atala .- Arbitroen Lurralde Batzordea	26
III. atala.- Arbitroen Eskola	27
IV. atala.- Kirol Teknikarien Eskola	28
VII. kapitulua .- Kirol justiziaren organoak	29
I. atala .- Xedapen orokorrak	29
II. atala .- Diziplina Batzordea	30
III. atala.- Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea	31
VIII. kapitulua .- Areto-futboleko Lurralde Batzordea	31

IV. TITULUA.- Afiliatuak edo federazio-estamentuak	32
I. kapitulua .- Xedapen orokorrak	32
II. kapitulua .- Kirolariak	33
III. kapitulua .- Teknikariak eta epaileak	34
IV. kapitulua .- Klubak eta kirol elkarteak	34
V. TITULUA.- Hauteskunde araubidea	36
VI. TITULUA.- Araubide Ekonomikoa/Finantzakoa	38
I. kapitulua .- Xedapen orokorrak	38
II. kapitulua .- Baliabide ekonomikoak	39
III. kapitulua .- Aurrekontua	39
VII. TITULUA.- Dokumentu Araubidea	42
I. kapitulua .- Federakundearen liburuak	42
II. kapitulua .- Federakundearen araudiak	42
VIII. TITULUA.- Diziplina Araubidea	43
IX. TITULUA.- Desegitea eta likidazioa	44
X. TITULUA.- Estatutuen onespina eta aldaketa	47
BESTE XEDAPEN BATZUK	48
- Xedapen gehigarria	
- Indargabelutako xedapena	48
- Azken xedapena	48
I ANEXUA.- Bizkaiko Futbol Federakundearen Estatutuak	49

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Futbol Federakundea – Federación Vizcaína de Fútbol (aurrerantzean **B.F.F.-F.V.F.**) irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dauka; bere eratxikipenak ez ezik, funtzio publiko administratiboak garatzen ditu, eta bertan, kirolariak, teknikariak, epaileak, klubak edo elkarteak eta beste talde batzuk biltzen dira, Futbol eta Areto-Futbola modalitateak, diziplina guztietan, sustatzeko eta antolatzeko, Bizkaiko Lurralde Historikoan.

2. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F. honako hauek arautzen dute: Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, edo ta Euskadiko Federakundeei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuak, Legea garatzen duten gainerako xedapenek, estatutu hauek, araudi bereziek eta bertako organoek harturiko baliozko erabakiek.

3. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.aren egoitza soziala Bilbon dago, Cosme Etxebarrieta 3-5 kalean. Zuzendaritza Batzak, berriz, egoitza aldatzeko eta lekualdatzeko erabakia har dezake.

4. ARTIKULUA

1.- **B.F.F.-F.V.F.**aren oinarrizko jarduketa eremua Bizkaiko Lurralde Historikoan dago, bertatik kanpo egon daitezkeen jardueren kalterik gabe.

2.- **B.F.F.-F.V.F.** Euskadiko Futbol Federakundearen barruan sartuta egongo da.

5. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ak Futbolaren eta Areto Futbolaren kirol modalitateak eta diziplina ezberdinak eta lehiaketa ofizialak sustatu, kalifikatu, baimendu eta antolatzen ditu.

6. ARTIKULUA

Helburuak betetzeko, **B.F.F.-F.V.F.**ak honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Federatuen kirol jarduera antolatzea, Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan.
- b) Lehiaketa ofizialak eta jarduerak antolatzea, Bizkaiko lurralde eremuan, bere kirol modalitatearen barruko diziiplina guztietan.
- c) Partaidetza eta lehiaketa arauak ezartzea, goragoko lurralde eremuetako federakundeek emandako arauak aplikatzearen kalterik gabe.
- d) Kirol modalitatearen federazio-lizentziak tramitatzea, Euskadiko Federakundeak horiek emateko, berak ezarritako baldintzen eta prozeduraren arabera.
- e) Jarduera garatzean sortzen diren kirol gatazkak aztertzea eta konpontzea organu judiziala eta tartekaritza kaltetu gabe.
- f) Arauak bete egiten direla zaintzea eta diziiplina ahala gauzatzea, arauak aintzat hartuta.
- g) Euskadiko Futbol Federakundeari laguntzea, debekaturiko substantzia zein talde farmakologikoen eta kirolean arauzkoak ez diren metodoen erabileraren prebentzioa, kontrola nahiz ezabaketa egiteko, horri buruz ezarritako araudiaren arabera.
- h) Euskadiko Futbol Federakundearekin lankidetzan jardutea, euren jarduera futbolaren barruko modalitate eta espezialitate guztietan garatzen duten teknikarien eta epaileen heziketan.
- i) Baliabide ekonomikoen norakoa eta esleitzea ezartzea; beste erakunde batzuek bere jarduera garatzeko emandakoak kudeatzea, eta baliabide guztien aplikazio zuzena kontrolatzea.
- j) Berari atxikitako kirol klubei eta taldeei eman beharreko dirulaguntzak esleitzea eta horien aplikazioa kontrolatzea.
- k) Euskadiko administrazioei laguntzea, kirola sustatzeko helburuak betetzeko; batez ere, 14/1998 Legeak federakundeei esleituriko lankidetzatza eta aholkularitza funtzioak betetzeko.
- l) Kirol estatutuak eta araudiak sortzea.
- m) Futbol modalitateen ordezkartza edukitzea, autonomia mailan, eta maila horretako lehiaketetan estamentu guztien partaidetza sustatzea, baita estatu zein nazioarteko lehiaketetan beti kompetentziaren barne dagoelarik.
- n) Futboleko emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea eta, ahal den neurrian, garatzea Bizkaiko Lurralde Historikoan.

ñ) Eta, orokorrean, futbola sustatzeko eta hobetzeko komenigarriak diren ekintza guztiak garatzea.

7. ARTIKULUA

1. Beste funtzio batzuk ez ezik, **B.F.F.-F.V.F.**ak funtzio publiko administratiboak ere baditu, eta kasu honetan, kasuan kasuko administrazioaren laguntzailatzat jarduten du.
2. Kasuan kasuko administrazioaren irizpideekin, zaintzarekin eta kontrolarekin, **B.F.F.-F.V.F.**ak, ordezkartzaren bidez, honako funtzio publiko administratibo hauek ditu:
 - a) Lehiaketa ofizialak kalifikatzea, antolatzea eta baimentzea.
 - b) Bizkaiko futbolaren ordezkartza antolatzea, horren partaidetza duten lehiaketa guztietan.
 - c) Federazio-lizentziak tramitatzea.
 - d) Futbolean egon daitekeen indarkeriaren prebentzioa, kontrola eta zehapena egitea.
 - e) Dopinaren prebentzioa, kontrola eta zehapena egitea.
 - f) Kiroleko diziplina ahala erabiltzea.
 - g) Kirol Justiziako Euskadiko Batzordearen ebazpenak betearaztea.
 - h) Estatutuak eta araudiak onestea.
 - i) Herri Administrazioari laguntzea eta parte hartzea, kirol programen garapenean.
 - j) Federakundearen hauteskunde prozesuak kontrolatzea.

8. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ak ezin izango du inoiz ere eskuordetu, bidezko administrazio baimenik gabe, berari eskuordeturiko funtzio publikoak. Baimena, bestalde, euren ezaugarriak aintzat hartuta eskuordetzeko modukoak diren funtzioetarako soilik eman dezake.
2. **B.F.F.-F.V.F.**ak, aurretiazko administrazio baimena edukita, funtzio publikoak eskuordetu ahal izango dizkie beraren ordezkariak diren elkarteei.

9. ARTIKULUA

- 1.- **B.F.F.-F.V.F.**aren barruan debekaturik daude arrazaren, erlijioaren, iritzien edo sinesmenen eraginezko diskriminazio guztiak, baita beste edozein egoera pertsonalaren edo sozialaren eraginezko guztiak ere.
- 2.- **B.F.F.-F.V.F.**ko afiliatu guztiek bertako justizia organoen benetako babesa lortzeko eskubidea dute, euren bidezko eskubideak eta interesak gauzatzean, eta ezin izango da inoiz defentsarik eza egon.

II. TITULUA

FEDERAZIO-LIZENTZIAK ETA LEHIAKETA OFIZIALAK

I. KAPITULUA

FEDERAZIO-LIZENTZIAK

10. ARTIKULUA

1. Federazio-lizentzia titularrari, Pertsona fisikoa edo juridikoa, **B.F.F.-F.V.F.**aren afiliatu izaera ematen dion agiri pertsonala eta besterenezina da; gainera, lehiaketa ofizialetan parte hartzeko gaitasuna ematen dio, futbolaren modalitate edo espezialitate desberdinak arautzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.
2. Federazio-lizentzia Euskal Herriko osoan bakarra da eta, beraren bidez, titularra **B.F.F.-F.V.F.**ra eta Euskadiko Futbol Federaziora atxikita gelditzen da.
3. Federazio-lizentzia EFF-FVFak emango du, **B.F.F.-F.V.F.**ak tramitazioa egin ondoren, osasun azterketa egokia egindakoan (horren edukia aurretiaz zehaztuta); lizentziaren bidez, titularrak parte hartu ahal izango du antolatzen diren lehiaketetan.

11. ARTIKULUA

1. Federatuek borondatezko kuota gehigarria eman ahal izango diote **B.F.F.-F.V.F.**ari, Federakundearen zerbitzuak eta jarduerak finantzatzeko.
2. **B.F.F.-F.V.F.**ak eskumena dauka federazio-lizentzia tramitatzeko eta funtzio publiko horren barruan, besteak beste, honako ahalmen hauek izango ditu:
 - a).- Federatu nahi dutenei federazio-lizentzien baldintzei eta ondoreei buruzko informazioa ematea.
 - b).- Federazio-afiliaziorako behar diren agiri eta datu guztiak biltzea.
 - c).- Lizentzien zenbateko osoa kobratzea eta zenbateko hori Euskadiko Kirol Federazioen Dekretuan eta berori garatzen duten xedapenetan ezarritakoaren arabera likidatzea.
3. **B.F.F.-F.V.F.**ak Biltzar Nagusiak onetsitakoaren arabera banatuko du lizentzia bakoitzaren zenbateko garbia. Zenbateko garbi hori, berriz, zenbateko gordinari 13.1 artikuluan ezarritako zenbatekoak kentzearen eraginezkoa izango da. **B.F.F.-F.V.F.**ak jaso beharreko zenbatekoa ez da inoiz ere lehen aipaturiko zenbateko garbiaren %35etik beherakoa izango.

12. ARTIKULUA

1. Lizentzien formatua eta edukia **B.F.F.-F.V.F.**ak onetsiko ditu, eta lizentzietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira.
2. Lizentzien euskarriak baldintza tekniko egokiak edukiko ditu, komunikazioen teknologien aprobetxamendu egokia ahalbidetzeko. Kirolaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritzak onetsi egingo ditu euskarri horien zehaztapen teknikoak.

13. ARTIKULUA

1. Pertsona fisikoen federazio-lizentzia bakoitzarekin batera, aseguruia egongo da eta horrek, gutxienez, honako arrisku hauen estaldura bermatuko du:
 - a) Erantzukizun zibila.
 - b) Galera anatomiko edo funtzionaletarako eta heriotzarako kalte-ordaina.
 - c) Osasun laguntza, Osasun Sistema Publikoaren doako estaldurarik gabeko kasuetan eta eremuetan, titularrak kontingentziak beste asegururen baten bidez estalita ez dituenean.
2. Aurreko atalean adierazitako aseguruaaren prestazioak, gutxienez, ekainaren 4ko 849/1993 Errege Dekretuan ezarritakoak izango dira (Derrigorrezko Kirol Aseguruaren gutxieneko prestazioak ezarri dituen dekretua, Estatu mailako lehiaketa federatueterako), edo Euskadiko Federakundeei buruzko urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren garapenean ezarritakoak.
3. Kirol denboraldi bakoitzaren hasieran, EFF-FVFak hitzarturiko polizen zerrenda eta horien baldintzen kopia bidaliko du Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzara, hori jakitun gelditzeko eta ondore egokietarako; bertan, bermaturiko estaldurak eta prestazioak egongo dira adierazita.

14. ARTIKULUA

1. Lizentziak arauz emango dira eta ezin izango dira ukatu eskatzaileak lizentzia lortzeko baldintzak betetzen dituenean.
2. **B.F.F.-F.V.F.**ak gehienez hilabeteko epean eman edo ukatu beharko du lizentzia, tramitazioaren biharamunetik zenbatzen hasita.
3. Lizentzia emateko eskabidea egin eta, lehen adierazitako gehieneko epean, ebazpenik jakinarazi ezean, lizentzia eman egingo dela ulertuko da.

4. Aurreko atalean aipaturiko lizentzien berariazko ukapenaren aurka (arrazoituriko ukapena beti), edo justifikazio agiria ematea ukatzeko erabakiaren aurka, errekurtsua jar daiteke Eusko Jaurlaritzan kirolen arloan eskumena duen Zuzendaritzan; egutegiko zazpi eguneko epea egongo da horretarako, azaroaren 26ko 30/1992 Legean gorako errekurtsorako ezarritako araubidea aintzat hartuta.
5. **B.F.F.-F.V.F.**aren zuzendariak, inolako justifikaziorik gabe federazio-lizentziak ukatzen dituztenean (aurreko ataletan aipaturiko ukapenak), eskabideak epearen barruan ebatzen ez dituztenean edo iruzurra eginez (berariazko edo ustezko iruzurra) ematen dituztenean, erantzukizuna izango dute eta bidezko zehapena ezarri ahal izango zaie, sor daitekeen erantzukizun zibilaren edo zigor erantzukizunaren kalterik gabe.

II. KAPITULUA

LEHIAKETA OFIZIALAK

15. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**a lehiaketa ofizialak antolatzeko, kalifikatzeko edo baimentzeko eta titulu ofizialak emateko ahalmena duen erakunde bakarra da.
2. Lehiaketa ofizialak **B.F.F.-F.V.F.**ak halakotzat kalifikatzen dituenak izango dira, eta, beti ere, lehiaketen egutegi ofizialean jasota daudenak.
3. Titulu ofizialak lehiaketa ofizialen ondoriozkoak baino ezin dira izan.

16. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ak egutegi berezia edukiko du bere lehiaketa ofizialak egiteko.
2. Lehiaketa horietan federazio-lizentzia dutenek soilik parte hartu ahal izango dute, eskubide eta betebeharrak guztiekin.
3. **B.F.F.-F.V.F.**ak koordinatu egingo ditu bere funtzioak, kirol lehiaketen egitura piramidala bermatzeko.

III. TITULUA

FEDERAKUNDEAREN ORGANOAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

17. ARTIKULUA

1. B.F.F.-F.V.F.an, gutxienez, honako organo hauek egongo dira:

A) Gobernuakoak

1. Biltzar Nagusia

B) Ordezkapenekoak

1. Presidenteak

C) Administrazioakoak

1. Zuzendaritza Batza

D) Barne araubidekoak

1. Idazkaritza Nagusia
2. Diruzaintza
3. Kirol Zuzendaritza Teknikoa
4. Aholkularitza Juridikoa

E) Teknikoak eta Arbitroak

1. Kirol Teknikarien Lurralde Batzordea
2. Arbitroen Lurralde Batzordea
3. Kirol Teknikarien Eskola
4. Arbitroen Eskola

F) Kirol Justiziakoak

1. Futbol Amateurraren Lehiaketa Batzordea
2. Emakumeen, Kadeteen eta Gazteen Futboleko Lehiaketa Batzordea
3. Areta Futbol Lehiaketa Batzordea.
4. Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.

G) Areta Futboleko Lurralde Batzordea

2. Presidenteak, Zuzendaritza Batza eta Biltzar Nagusia hautazko organoak izango dira, eta gainerako organoek askatasun osoz izendatu eta kargutik kenduko ditu **B.F.F.-F.V.F.**eko Presidenteak.

3. Aurreko paragrafoan adierazitakoaren salbuespentzat, Euskadiko Futbol Federakundeko Presidenteak zehatu eta berretsi egingo du Kirol Teknikarien Eskolako zuzendaria, **B.F.F.-F.V.F.**ak proposatuta.

18. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ko edozein organotako kide izateko baldintza orokorrak honako hauek dira:

- 1) Adin nagusikoa izatea.
- 2) Federakundearen jarduketaren eremuan bizitzea. Salbuespenez, Biltzar Nagusia baldintza hori salbuetsiko du.
- 3) Diziplinako zehapen irmorik ez edukitzea, karguak edo funtzioak betetzeko ezgaitasuna eragiten duen zehapenik.
- 4) Epai irmoaren bidezko zigorrik ez edukitzea, kargu publikoa edukitzeko ezgaitasuna ezartzen duen zigorrik.
- 5) Epai irmoaren bidez ezgaitasuna adierazita edukitzea.

19. ARTIKULUA

1. Federakundeko kide anitzeko organotako kide guztiek, kargua hautapenaren bidez lortu badute, euren funtzioak garatzen jarraituko dute, harik eta euren ondorengoak kargu hartu arte, eta gainera, berriro hautatu ahal dira, Estatutuotan ezarritakoaren arabera.
2. Dena delakoagatik agintaldia amaitzen ez badute, horiek utzitako karguak betetzen dituztenak ordeztuari falta zaion denborarako beteko dute kargua, eta horiek ezin izango dira beste hauteskunde batera aurkeztu, harik eta kasuan kasuko aldi olinpikoa amaitu arte.

20. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ko organoetako kideek honako zergati hauengatik utzi beharko dute kargua:
 - a) Agintaldia amaitzea.
 - b) Mugiaraztea, bidezko kasuetan, ez baitira hautazko karguak.
 - c) Dimititzea.
 - d) Kargua betetzea ekiditen duen ezgaitasuna edukitzea.
 - e) Estatutu hauetako 18. artikuluan aipaturiko hautaezintasun zergatiren bat betetzea.
 - f) Legean edo estatutuetan ezarritakoaren eraginezko bateragarritasuna.
2. **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidentearen eta Zuzendaritza Batzaren kasuan, zentsura-botoa ere egon daiteke.

21. ARTIKULUA

1. Bestelakorik xedatu ezean, Federakundeko organoek harturiko erabakiak betearazleak izango dira eta ondoreak izango dituzte interesatuei jakinarazi eta biharamunetik.
2. Kide anitzeko organoen erabakiak bertaraturiko kideen gehiengo soilez hartuko dira, Legeko edo Estatutuetao xedapenek gehiengo kualifikatuak eskatzen dituztenean izan ezik.
3. Idazkariak federazio-organoez harturiko erabaki guztien akta egingo du; bertan, gutxienez, bertaratuena izena, bilera egiteko eguna nahiz lekua, eztabaidaren puntu nagusiak, bozkatzeko modua zein horren emaitza eta erabakien edukia jasoko dira.
4. Harturiko erabakiaren aurkako botoek, arrazoituak izanez gero, salbuetsi egingo dute kide anitzeko organoen erabakien eraginezko erantzukizuna.

II. KAPITULUA

BILTZAR NAGUSIA

22. ARTIKULUA

Biltzar Nagusia **B.F.F.-F.V.F.**ko gobernu organo nagusia da eta, gutxienez, honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Presidentea eta Zuzendaritza Batza hautatzea.
- b) Federakundeko kontuak eta aurrekontuak onestea.
- c) Federakundearen desegitea erabakitzea.
- d) Presidenteari eta Zuzendaritza Batzari egindako zentsura-mozioa onestea.
- e) Lehiaketan egutegi ofiziala onestea.
- f) Federakundearen jarduketa plana onestea.
- g) Federakundearen estatutuak eta araudiak onestea eta aldatzea.
- h) Ondasun higiezinak erabiltzea, besterentzea nahiz zergapetzea, maileguak hitzartzea eta zor-tituluak edo ondarearen zati alikuotaren tituluak ematea.
- i) Garrantzia aintzat hartuta, bere onespina behar duten guztiak.

23. ARTIKULUA

1. Biltzar Nagusia lau urtean behin hautatuko da, botazio aske, zuzen, berdintasunezko eta sekretuaren bidez, Joko Olinpikoak egiteko urteetan.

2. Salbuespenez, eta berariazkoa den aurretiazko administrazio baimena edukiz gero, hauteskunde prozesuen hasiera aurreratu edo atzeratu egin daiteke, baldin eta ezarritako epeetan egin ezin badira.

I. ATALA

BILTZAR NAGUSIAREN OSAKETA

24. ARTIKULUA

1. Biltzar Nagusia **B.F.F.-F.V.F.**ko estamentuen ordezkariak osatuko dute.
2. Guztira 100 kide gehi Presidentea izango dira; horien %90 (hau da, 90) futbol modalitate nagusikoak izango dira, eta %10 (hau da, 10) Areto Futbol modalitatekoak.

25. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ko Biltzar Nagusia klubak, kirol elkarten, kirolarien, teknikarien eta epaileen ordezkariak osatuko dute, honako proportzio honetan:

a) Futbol modalitate nagusiko eta Areto Futbol modalitateko kideak osatzen duten 100 kideko Biltzar Nagusian, kide guztien %80eko ordezkariak kirol klubak eta elkarten estamentuak izango du.

b) Futbol modalitate nagusiko eta Areto Futbol modalitateko kideak osatzen duten 100 kideko Biltzar Nagusian, kide guztien %5eko ordezkariak kirolarien estamentuak izango du.

c) Futbol modalitate nagusiko eta Areto Futbol modalitateko kideak osatzen duten 100 kideko Biltzar Nagusian, %15eko ordezkariak teknikarien eta epaileen estamentuak izango du; ordezkariak, izan ere, hauteskundeak egiteko unean estamentu bakoitzak duen lizentzia kopuruarekiko proportzionala izango da.

d) Aurreko ehunekoak aplikatuz, estamentuen araberako kide kopuruaren zifra Hauteskunde Batzak zehaztuko du hauteskunde bakoitza baino lehen, onetsitako hauteskunde-zentsua aintzat hartuta.

II. ATALA

BILTZAR NAGUSIKO KIDEEN HAUTAPENA

26. ARTIKULUA

1.- Kirol klubuen eta elkarten estamentuak Biltzar Nagusian dituen ordezkariak kirol klubuen eta elkarten ordezkariak aukeratuko dituzte, ordezkari guztien artean, eta, hautatuak izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a).-Euskadiko Kirol Elkarten erregistroan inskribaturik eta Futbol Federaziora atxikita egotea.

b).- Azken 12 hilabeteotan kirol jardueraren bat egitea.

2.-a).-Kirolarien estamentuak Biltzar Nagusian dituen ordezkariak, 18 urtetik gorako kirolarieen artean hautatuko dira.

Kirolarien estamentuak Biltzar Nagusian dituen ordezkariak, 16 urtelik gorako kirolariak hautatuko dute.

b).- Lizentzia indarrean edukitzea hauteskunderen urterako eta aurreko urtean ere indarrean edukitzea.

3.- Teknikarien eta epaileen estamentuen ordezkariak teknikariak eta epaileak hautatuko dituzte, hauteskundeak egiteko urtean eta aurreko urtean lizentzia indarrean dutenen artean, lizentziaren kategoria edozein izan arren.

27. ARTIKULUA

1. Biltzar Nagusia hautatzen denetik lau urte igaro baino lehen, Zuzendaritza Batzak Hauteskunde Batzaren bilerarako deialdia egingo du, hauteskunde prozesua hasteko.

2. Hori ezinezkoa bada, Biltzar Nagusiko edozein kide taldek egin ahal izango du, gutxienez bertako kide guztien %5era iritsiz gero, Hauteskunde Batzarako deialdia.

III. ATALA

BILTZAR NAGUSIAREN FUNTZIONAMENDUA

28. ARTIKULUA

1. Biltzar Nagusiak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu:

2. Biltzar Nagusiaren ohiko bilkura gutxienez urtean behin egingo da, lehenengo seihilekoaren barruan, honako hau egiteko:

- a) Kontuen egoera eta aurrekontua onesteko.
- b) Jarduketa plana onesteko.
- c) Lehiaketan egutegi ofiziala onesteko.

3. Era berean, bilkura arruntean gainerako gai guztiak ere aztertuko dira, hurrengo atalean ezarritakoak izan ezik, eta gainera, hauxe ere egingo du:

- a) Beste kirol elkarte, federakunde, erakunde eta korporazio publiko batzuekin akordioak eta hitzarmenak onestea, horiek eragina dutenean **B.F.F.-F.V.F.**aren kirol funtzionamenduan.
- b) Bere ondasun higiezinak besterentzea eta zergapetzea, maileguak egitea eta eskualdatzeko moduko tituluak, akzioak edo obligazioak jaulkitzea.
- c) Dohaintzak, dirulaguntzak eta gainerako liberaltasun guztiak onartzea, Federakundearen alde egiten direnak, baldin eta baldintzei edo zerga-kargei lotuta badaude.

4. Biltzar Nagusiaren bilkura berezian honako gai hauek aztertuko dira:

- a) Hauteskundeak egitea.
- b) Estatutuak onestea eta aldatzea.
- c) Araudiak onestea eta aldatzea.
- d) Zentsura-mozioa.
- e) Federakundea desegitea.

29. ARTIKULUA

Ohiko Biltzar Nagusirako deialdia Federakundeko biltzarburuak egingo du, bai ofizioz edo bai Zuzendaritza Batzako kideen gehiengo osoak nahiz Biltzar Nagusiko kideen %5ek eskatuta.

Hori ezinezkoa denean, edo biltzarburuak Biltzarrerako deialdia egiteko betebeharra bete ezean, Zuzendaritza Batzako kideen gehiengo osoak edo Biltzarreko kide guztien %5eko taldeak egin ahal izango dute deialdia.

Biltzar Nagusi Berezirako deialdia **B.F.F.-F.V.F.**ko lehendakariak egingo du, bai ofizioz edo bai Zuzendaritza Batzako kideek nahiz Biltzar Nagusiko kideen %5ek eskatuta.

Hori ezinezkoa denean, edo biltzarburuak Biltzarrerako deialdia egiteko betebeharra bete ezean, Zuzendaritza Batzako kideen gehiengo osoak edo Biltzarreko kide guztien %5eko taldeak egin ahal izango dute deialdia.

Biltzarburuak gehienez 15 eguneko epea izango du Biltzarrerako deialdia egiteko, horretarako gaitasuna duten organoek edo taldeek eskabidea egiten dutenetik zenbatzen hasita.

30. ARTIKULUA

Biltzar Nagusiaren (ohikoa edo berezia) iragarpena Federazioko Presidenteak egingo du, gutxienez biltzarra egin baino 15 egun lehenago; idatzizko komunikazioa fax, korreo elektronikoz edo beste era batera onartuko da baldin eta gorde arakutzen usten badu, idazkian, eguneko gai-zerrenda, lekua nahiz ordua eta bigarren deialdia adieraziko ditu, eta azken hori lehenengoaren ordu erdi geroago izango da.

31. ARTIKULUA

Biltzarreko kideek gai interesgarri guztiak sartzeko eskabidea egin ahal diote biltzarburuari, baldin eta hori, gutxienez, Biltzarreko kideen %15ek proposatzen badu eta, gutxienez, Biltzarra egin baino hamar egun lehenago planteatzen bada.

32. ARTIKULUA

1. Biltzar Nagusia lehenengo deialdian legez eratuta geldituko da, bertako kideen erdiak gehi bat bertan daudenean. Bigarren deialdian eratuta gelditzeko, nahikoa izango da edozein kide kopuru bertaratzea.

2. Biltzar Nagusiaren barruan, boto-eskuordetzea ez dago onartuta.

33. ARTIKULUA

1. Estatutu hauetako 28.4.a) artikuluan aipaturiko akordioak hartzeko izan ezik (horietan boto sekretua eta idatzizkoa behar baita), Biltzarrean egiten diren gainerako bozketak

adierazitakoaren arabera egingo dira, bai ahoz edo bai eskua altxatuz, biltzarburuak erabakitakoaren arabera.

2. Biltzar Nagusiaren erabakiak bertaraturiko kideen gehiengo soilez hartuko dira.

3. Aurreko atalean ezarritakoaren salbuespentzat, Estatutuetako 28. artikuluko 4) ataleko b), d) eta e) epigrafeetan aipaturiko akordioak eta erabakiak onesteko, beharrezkoa izango da Biltzarrera bertaraturiko kideen bi herenen aldeko botoa.

III. KAPITULUA

PRESIDENTEA

34. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**aren Presidenteak horren legezko ordezkaritza bereganatzen du; gainera, Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzak harturiko erabakiak betearaziko ditu; azkenik, batak nahiz besteak egindako bilkurak zuzendu eta, berdinketarik egonez gero, erabakia hartzen du, kalitatezko botoaren bidez.
2. Biltzar Nagusiak lau urtean behin hautatuko du Presidentea, botazio askea, zuzena, berdintasunezkoa eta sekretua erabiliz, horretarako deituriko bilera batean, arauz ezarritako prozedura erabiliz. Hautagai bakarra dagoenean ez da bozketarik egongo.
3. Hautaturiko kandidaturako lehenengo postuan dagoena izango da **B.F.F.-F.V.F.**aren Presidentea.
4. Presidentea hurrengo hauteskundeetan eta ondorengoetan ere hautatu ahal izango dute, eta agintaldi kopuruan ez da inolako mugarik izango.
5. Agintaldian, Presidenteak ezin izango du halako beste kargurik eduki beste federakunderen batean (modalitate bereko edo beste modalitate bateko federakundea); halaber, kargua ez da bateragarria izango kirol klub edo elkarte bateko lehendakaritzarekin, futbolariarekin, arbitroarekin edo entrenatzailearekin; lizentziarekin jarraituko du, halakorik edukiz gero, baina hori etenda geldituko da harik eta **B.F.F.-F.V.F.**aren Presidentea izateari utzi arte.
6. Dena delakoagatik agintaldia oso-osorik bete ezin badu, horrek utzitako kargua betetzen duenak ordeztuari falta zaion aldian egongo da bertan.

7. Funtzioak betetzea ekiditen dion ez agertzea, gaixotasuna edo beste zergatiren bat egonez gero, izendaturiko Presidenteordeak ordeztu egingo du lehendakaria.

35. ARTIKULUA

Betearazte eta ordezkaritza organotzat dituen funtzioak ez ezik, Presidenteak honako funtzio hauek ere izango ditu:

- a) Biltzar Nagusirako deialdia egitea eta biltzarburu jardutea.
- b) Biltzar Nagusiak harturiko erabakiak betetzeko eta betearazteko sustapena egitea.
- c) Bileretarako deialdia egin eta bertako Presidente izan; Zuzendaritza Batzaren gai-zerrenda ere finkatuko du.
- d) Ordainketak **B.F.F.-F.V.F.**aren izenean agindu.
- e) Abokatuei, prokuradoreei edo agintea duen beste edozein pertsonari ahalmen bereziak edo orokorrak ematea, **B.F.F.-F.V.F.**aren legezko ordezkaria izateko, bai epaiketetan eta bai bertatik kanpo.
- f) Biltzar Nagusiak emandako eratzikipen guztiak eta estatutu hauen ondoriozkoak.

36. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak honako zergatiren baten eraginez utziko du kargua:

- a) Dimisioa, heriotza edo ez agertzearen adierazpena.
- b) Mozio-zentsuraren onespina.
- c) Ezgaitzea edo gaitasungabetzea.
- d) Agintaldia amaitzea.
- e) Estatutu hauetan ezarritako bateraezintasun edo hautaezintasun zergatirik bat egotea.
- f) 42.1 artikuluko a) eta c) ataletan Zuzendaritza Batza kargutik kentzeko adierazitako zergatiak.

2. Presidenteak kargutik kentzen denean, a), c), e) eta f) ataletan adierazitako zergatiren batengatik, horren ordeztu, agintaldia amaitu arte, berak izendaturiko Presidenteordeak hartuko du kargua. Hori ezinezkoa denean, Zuzendaritza Batzak beste Presidentei bat aukeratuko du bertako kideen artean, gehiengo osoz. Hautapen hori Biltzar Nagusiak berretsiko du, egiten duen lehenengo bileran.

IV. KAPITULUA

ZUZENDARITZA BATZA

37. ARTIKULUA

Zuzendaritza Batza Federakundearen administrazio organoa da eta administrazio nahiz ekonomia kudeaketako funtzioak ditu, Federakundearen gaietan; funtzio horiek, berriz, Biltzar Nagusiak emandako jarraibideen arabera egingo ditu.

38. ARTIKULUA

- 1 . Zuzendaritza Batzako kide kopurua bakoitia izango da.
2. Zuzendaritza Batzako kide guztiak, Biltzar Nagusiko kideak ez direnean, ahotsarekin baina boto barik joan daitezke bertara.
3. Zuzendari kargua ez da bateragarria Federakundean aholkularitza profesionaleko funtzioak edukitzearekin; halaber, ez da bateragarria lan nahiz merkataritza erlazioko edo erlazio zibileko lanbide zerbitzuak ematearekin.
4. Era berean, ez da bateragarria jokalaria, arbitroa edo entrenatzailea izatearekin, eta lizentziarekin jarraituko da, halakorik edukiz gero, baina hori etenda geldituko da agintaldian.
5. Zuzendaritza Batzaren barruan Presidenteordea egongo da eta horrek Presidentearen funtzioak izango ditu, azken hori aldi batean ez dagoenean edo kargua uzten duenean, estatutu hauetako 36.2 artikuluan adierazitako zergatiren bategatik.

39. ARTIKULUA

Zuzendaritza Batzako kideak lau urtean behin aukeratuko dira, udako joko olinpikoen garaian, Biltzar Nagusia berritu ondoren, botoen gehiengoarekin, botazio askea, berdintasunekoa, zuzena eta sekretua erabiliz, eta botoak Biltzarreko kideek emango dituzte, hauteskunde prozeduraren arabera. Zuzendaritza Batzako kideak berriro hautatu ahal dira hurrengo eta ondorengo hauteskundeetan, eta horiek edukitzeko moduko agintaldi kopuruan ez dago mugarik.

40. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak edo, bestela, Zuzendaritza Batzako kideen %25ek bertako bilkuretarako deialdia egingo dute.
2. Deialdiarekin batera, eguneko gai-zerrenda erantsiko da, eta bertan, aztertuko diren gaiak agertuko dira.
3. Batzako kideei jakinaraziko zaie, gutxienez hamar egun lehenago, ondo justifikaturiko premiazko kasuetan izan ezik.
4. Hala eta guztiz ere, eratuta geldituko da, aurretiazko deialdirik egin ez arren, baldin eta kide guztiak bertaratzen badira eta aho batez erabakitzen badute.
5. Erabakiak bertaratuen gehiengo soilez hartuko dira, eta egon daitezkeen berdinketak, berriz, Presidentearen kalitatezko botoarekin erabakiko dira. Erabaki horiei ezin zaie errekurtsorik jarri Federakundearen justizia-organoetan.
6. Premiazko erabakiak hartzean, kide guztiek berariaz onartuz gero, Zuzendaritza Batzako posta elektronikoa, faxa, bideokonferentzia eta antzeko baliabide teknikoak erabiliz har ditzake erabakiak. Halako kasuetan, aktari faxen, posta elektronikoen eta bidezko euskarri guztien ziurtagiriak erantsiko zaizkio.

41. ARTIKULUA

Zuzendaritza Batza legez eratuta geldituko da lehenengo deialdian kideen erdiak gehi bat bertaratzen direnean, eta, bigarren deialdian, berriz, gutxienez kideen %25 bertaratzen direnean, Federakundearen Presidenteaa edo horrek izendaturiko Presidenteordea bertan egonez gero.

B.F.F.-F.V.F.ko Presidentea edo, hori egon ezean, horrek izendaturiko Presidenteordeak Zuzendaritza Batzako bilkurak gidatu eta horren jarduketa zuzendu nahiz koordinatuko du.

42. ARTIKULUA

1. Zuzendaritza Batza, Presidentea barne, deseginda geratuko da honako zergatiren bat dagoenean:
 - a) Kideen %50 baino gehiagok dimititzen badute edo hiltzen badira.
 - b) Zentsura-mozioa onetsiz gero.
 - c) Kideen %50 gaitasungabetu edo ezgaituz gero.
 - d) Agintaldia amaitzen bada.

2. Zuzendaritza Batzako kideek kargua utzi dezakete, aurreko puntuko a), c) eta d) ataletan adierazitakoen moduko zergatiak daudenean.
3. Zuzendaritza Batzako kide batek edo gehiagok kargua utziz gero, Presidentearen kasuan izan ezik, horien ordezkariaren hurrengo postuetan daudenek hartuko dute kargua. Bestela, Zuzendaritza Batzako gainerako kideek, kideen gehiengo osoz, ordezkariak hautatu ahal izango dituzte bozketaren bidez, eta bozketa hori berretsi egin beharko da Biltzar Nagusiaren hurrengo bilkuran.

43. ARTIKULUA

Biltzar Nagusiak Presidentearen eta Zuzendaritza Batzaren erantzukizuna eska dezake, zentsura-mozioa aurkeztuta, eta hori, berriz, Biltzar Nagusiko kideen gehiengo osoak berretsi beharko du, horretarako deitutako bilera batean.

Zentsura-mozioa onetsiz gero, Zuzendaritza Batzako kide guztiek kargua utziko dute, baita **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak ere.

44. ARTIKULUA

1. Zentsura-mozioa Presidenteari eta Zuzendaritza Batzari aurkeztuko zaie, eta kide bakoitzak formalizatuta egongo da, arrazoituriko eta sinaturiko idazkiaren bidez; gainera, NANaren kopia erantsiko da. Biltzarreko kide guztien %5ek formalizatuko du gutxienez, eta bertan, Presidenteak proposatzen den titular berria eta horren Zuzendaritza batza adieraziko dira.
2. Presidenteak jakinarazpena jaso ondoren, Biltzar Nagusi bereziko deialdia egin eta bertako gai-zerrenda bakarra zentsura-mozioan jasotakoa izango da. Deialdiaren epea, gehienez ere, hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten denetik zenbatzen hasita.
3. Biltzar Nagusirako deialdia egin ondoren, eztabaida hasteko, Biltzar Nagusiko kideen gehiengo soilak proposamenaren alde egin beharko dute, baldin eta kideen erdiak gehi beste bat bertaratu badira.
4. Bilkura hasi ondoren, zentsura-mozioa aurkeztu dutenen ordezkari bati emango zaio hitza, horiek izendaturiko ordezkariari, eta horrek mozioaren zergatiak azalduko ditu. Presidenteak erantzun eta, gero, bozkatu egingo da.
5. Mozioa Biltzar Nagusiko eskubide osoko kideen gehiengo osoz beharko da, eta postaz egindako bozketa ez da onartuko.
6. Zentsura-mozioa onetsiz gero, Presidenteak eta Zuzendaritza Batzako kide guztiek utzi egin beharko dute kargua.

45. ARTIKULUA

Presidenteak eta Zuzendaritza Batzak agintaldia amaitzean edo zentsura-mozioa onestean uzten dutenean kargua, jardunean jarraituko dute eta Presidentek Hauteskunde Batzarako deialdia egingo du, gehienez hilabeteko epean, hauteskunde prozesuari hasiera emateko.

Hori ezinezkoa denean, Biltzar Nagusiko kideen edozein taldek, bertako kide guztien %5era iritsiz gero, Hauteskunde Batzerako deialdia egin ahal izango du.

V. KAPITULUA

BARNE ARAUBIDEAREN ORGANOAK

I. ATALA

IDAZKARI NAGUSIA

46. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ko idazkari nagusiak, Presidenteak izendatuta eta horrekiko mendekotasun zuzenean, bere karguan izango du Federakundearen administrazio antolaketa, eta gainera, honako funtzio hauek izango ditu:
 - a) Biltzar Nagusiko eta Zuzendaritza Batzako bilkuren aktak egitea, eta organo horretan idazkaritzat jardutea, baita sortzen diren batzorde guztietako idazkaria izatea ere.
 - b) Organo horien egintzen ziurtagiri egokiak ematea.
 - c) Presidenteari eta Zuzendaritza Batzari informazioa ematea, horretarako eskabidea egiten zaionean.
 - d) Tramiteko gaiak ebaztea.
 - e) **B.F.F.-F.V.F.**ko langileriaren buru izatea.
 - f) Federazio-organoen erabakiak bete egiten direla bermatzea.
 - g) Jakinarazpenak sinatzea.
- 2 Idazkari Nagusiaren izendapena **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak egingo du; izendapena egin ezean, idazkariaren funtzioen erantzulea izango da eta funtzio horiek pertsona egokiei eskuordetu ahal izango dizkie.

47. ARTIKULUA

Aurreko artikuluko 1.a) atalean aipaturiko aktetan, bertaraturiko pertsonen izena, bakoitzak esandakoa (laburbilduta) eta gainerako gauza interesgarri guztiak adieraziko dira, baita bozketen emaitza (aldeko botoak, aurkakoa, partikularrak eta abstentzioak) eta harturiko erabakien testua ere.

II. ATALA

DIRUZAINA

48. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ko diruzaina Zuzendaritza Batzak aukeratzen du bertako kideen artean; gutxienez, honako funtzio hauek izango ditu:

- a) **B.F.F.-F.V.F.**ko kontuak eta eragiketa ekonomikoak zuzentzea.
- b) **B.F.F.-F.V.F.**ko kontabilitate-liburuak zaintzea eta eguneratzea.
- c) Beharrezko kontabilitate-agiri guztiak prestatzea, batez ere urteko aurrekontuaren zirriborroa eta ekitaldi bakoitzaren balantzea, gero Biltzar Nagusiak onesteko.

III. ATALA

KIROL ZUZENDARI TEKNIKOA

49. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ko kirol zuzendari teknikoa Zuzendaritza Batzak izendatzen du eta Federakundearen kirol zuzendaritza teknikoa izango du bere esku; hain zuzen ere, honako funtzio hauek edukiko ditu:

- a) Zuzendaritza Batzari hautesleen izendapena edo kargu-uztea proposatzea.
- b) Selekzioen kirol jarduera planifikatzea, kasuan kasuko lehiaketan arabera.
- c) Selekzioek egin beharreko kontzentrazioak, bidaia-planak eta abar prestatzea eta Zuzendaritza Batzari proposatzea, parte hartzen duten lehiaketak aintzat hartuta.
- d) Euskadiko Futbol Federakundearen Kirol Zuzendaritza Teknikoarekin lankidetzan jardutea.
- e) Kirol proiektuak, egiturak, lehiaketa mailako hobekuntzak eta abar prestatzea eta proposatzea, futbolaren diziplina guztiak sustatzeko.

IV. ATALA

AHOLKULARITZA JURIDIKOA

50. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ko Kirol Aholkularitza Juridikoan, Zuzendaritza Batzak izendaturiko pertsona fisikoa edo kide anitzeko elkargoko kidea egongo da, eta horrek honako funtzio hauek izango ditu:

- a) Zuzendaritza Batzetara joatea, horrek eskatuz gero; ahotsa izango du, baina botorik ez.
- b) Biltzarretara eta beste bilera batzuetara joatea, Zuzendaritza Batzak eskatuta eta horren aginduetara.
- c) Txostenak eta beste irizpen batzuk idaztea, Zuzendaritza Batzak eskatuta eta horren aginduetara.
- d) Aholkularitza Juridiko Orokorra ematea, baita Zuzendaritza Batzak aurretiaz mugaturiko gainerako funtzio guztiak ere.

VI- KAPITULUA

ORGANO TEKNIKOAK

51. ARTIKULUA

Federakundearen Organo Teknikoak hauexek dira:

- I. Kirol Teknikarien Lurralde Batzordea
- II. Arbitroen Lurralde Batzordea
- III. Arbitroen Eskola
- IV. Kirol Teknikarien Eskola
- V. Areto Futboleko Lurralde Batzordea.

Zuzendari Batzordeak behar izanez gero edozein organo teknikoaren eraketa adostu dezake.

I. ATALA

KIROL TEKNIKARIEN LURRALDE BATZORDEA

52. ARTIKULUA

1. Kirol Teknikarien Lurralde Batzordeak horien taldearen funtzionamenduaz arduratzen da zuzen-zuzen; gainera, **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidentearen menpe, euri eratzikitako funtzioen gobernu, ordezkari eta administrazioa egin behar du.
2. Batzordeari dagozkion alderdietan horrek egiten dituen proposamenak **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteari helaraziko zaizkio, behin betiko onetsita gelditzeko.
3. Kirol Teknikarien Lurralde Batzordeko Presidentea **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak izendatuko du; horren osaketa, funtzionamendu araubidea eta eskumenak, berriz, arauz ezarriko dira.
4. Kirol Teknikarien Lurralde Batzordeak honako funtzioak beteko ditu:
 - a) **B.F.F.-F.V.F.**ren Zuzendari Batzarrari entrenatzaileen eguneratze eta hobekuntzarako proba edo ikastaroak egiteko deialdiak proposatzea, edo futbolaren praktika tekniko mailan hobetzeko ontzat jo daitekeen edozein ekitaldi egitea sustatzeko.
 - b) Futbolaren teknika esparru guztietan sustatzen laguntzea. Hitzaldi, biltzar edo jardunaldi tekniko bidez edo ta ikaztetan eta lanen dibulgazioaren argitaratzearen bidez.
 - c) **B.F.F.-F.V.F.**ko Zuzendari Batzarrari informatzea futbolaren praktika tekniko mailan hobetzeko ontzat jo daitekeen edozein ekitaldi egitea sustatzeko.
 - d) Entrenatzaileen kontratuetan titulazioa zihurtatu edo bisatu.
 - e) Diru egoera, sarrera eta gastuak zehaztuz hilaren amaieran **B.F.F.-F.V.F.**ko Zuzendari Batzarraren aurrean aurkeztea. Horrezaz gain, urte bakoitzeko urtarrilaren 31ean egoeraren balantzea eta pasaden abenduko 31eko ekitaldiko kudeaketa emango da. Aurrezki kutxa, banketxe eta kreditu etxe edo edozein kontuen irekidurarako **B.F.F.-F.V.F.**aren baimena behar du, presidente eta Kirol Teknikarien Lurralde Batzordeko diru arduradun sinadurak beharko dira, baita **B.F.F.-F.V.F.**ren Zuzendari Batzordeko Diruzainarena, hiru sinaduretatik bik behar dira fondoaren baimenarako.
 - f) **B.F.F.-F.V.F.**aren Zuzendari Batzordeak sor dezakeen beste funtzio batzuk

II. ATALA

ARBITROEN LURRALDE BATZORDEA

53. ARTIKULUA

1. Arbitroen Lurralde Batzordea arbitroen federazio-taldearen funtzionamenduaz arduratzen da; gainera, **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidentearen menpe, eurei eratzikitako funtzioen gobernua, ordezkaritza eta administrazioa dagozkio.
2. Arbitroen Lurralde Batzordeak arbitro-lanen zuzendaritza eta antolaketa egingo du, **B.F.F.-F.V.F.**ak antolatzen dituen jardueretan eta lehiaketetan; gainera, arbitroen erakarpena eta heziketa ere bere funtzioen artekoa izango da.
3. Batzordeari dagozkion alderdietan horrek egiten dituen proposamenak **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteari helaraziko zaizkio, behin betiko onetsita gelditzeko.
4. Arbitroen Lurralde Batzordeko Presidentea **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak izendatuko du; horren osaketa, funtzionamendu araubidea eta eskumenak, berriz, arauz ezarriko dira.
5. Arbitroen Lurralde Batzordeak diziplina ahalmenak ditu, baina horiek arbitroen jarduketaren barruko alderdi teknikoetara mugaturik egongo dira. Horrez gain honako zeregin hauek betetzen ditu:
 - a) **B.F.F. – F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeari, federazio lehiaketan epaileen sailkapen teknikoa proposatzea eta dagokion kategorian duen adskripzioaren berri ematea.
 - b) **B.F.F. – F.V.F.**aren egutegi ofizialean dauden federatutako lehaiketen garapenaren kontrol zehatza eta arbitrajea, partidu horiek zuzentzeko epaileek izendatuko dituelarik, eta aukeratutako hauek ezin izango diote uko egin partidua zuzentzeari, behar den bezala justifikatutako arrazoiak ez baldin badira.
 - c) Jokoak diruen arauak bete eta betearaztea, eta behar izanez gero, lehiaketa desberdinetarako ezarrita dauden araudiak, horretarako behar diren erabakiak hartuz.
 - d) Bere kide guztien etengabeko eguneratze eta prestakuntza zaintzea, birziklaia ikastaroen bidez eta beren egoera fisiko eta teknikoa mantentzeko behar diren probak eginez, ezagupen eta presatakuntza mailarik onenak lortzeko asmoz.
 - e) **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeari hilabete bukaeran guztietan Diruzaintzaren egoera aurkeztea, Sarrerak eta Gastuak zehatuko direlarik. Era berean, urte bakoitzeko urtarrilaren 30ean, abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiaren egoera balantzea eta kudeaketa kontua ematea.

Aurrezki kutxa, banketxe eta kreditu etxe edo edozein kontuen irekidurarako **B.F.F. – F.V.F.**aren baimena behar du, presidente eta Arbitroen Lurralde Batzordeko diru arduradun sinadurak behar dira, baita **B.F.F. – F.V.F.**ren Zuzendari Batzordeko Diruzainarena, hiru sinaduretatik bik behar dira fondoaren baimenarako.

- f) **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak egindako proposamenarekin, Federakundeak dituen beste zenbait organorekin harremanak izatea, federazio lehiaketan garapena hobetzeko asmoz.

III. ATALA

ARBITROEN ESKOLA

54. ARTIKULUA

1. Arbitro eskolako Zuzendaria **B.F.F. – F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordearen menpe dagoelarik, Bizkaia Lurralde Historikoan futbolari dagozkion epaileen gaitze eta gaurkotzea egitekotzat dituen ihardutze sail teknikoa da.
2. **B.F.F.–F.V.F.**aren egoitzan egongo da eta beraren berarizko egitekoak hauexek dira:
 - a) **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak zehaztutako ikastaroak egitamutzea, deia egitea eta garatzea.
 - b) **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak behar bezala onartutako Barne-Jaurpideen Araudian ezarritako titulazioak ematea eta onartzea.
 - c) Gaurkotze eta berarizkotasun ikastaroak egitamutzea, deia egitea eta garatzea, baita epaileen gaitasun hobea lortzen lagunduko duten bilera teknikoak, hitzaldiak eta mintegiak ere.
 - d) **B.F.F. – F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak geroago onartzeko, ikastaroen programaketak zein ikastari bakoitzaren aurrekontu ekonomikoak aurkeztea.
 - e) Emango diren ikastaro gaiei dagokion testuak egitea.
 - f) Bizkaiko Arbitro Eskolaren arduetan, arauz ezarriko diren kategoriak sartuko dira.
3. Arbitroen Eskolako Zuzendaria **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu, bertako Presidenteak egindako proposamenaren arabera.
4. Behin izendapena eginda, Eskolako Zuzendariak izateari utziko dio.
5. Idazkaria eta Irakasleoa **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu, Eskolako Zuzendariaren eta Arbitroen Lurraldeko Batzordearen Zuzendaritza Batzordearen proposamena entzun ondoren.

6. B.F.F. – F.V.F.aren Zuzendaritza Batzordeari hilabete bukaeran guztietan Diruzaintzaren egoera aurkeztea, Sarrerak eta Gastuak zehatuko direlarik. Era berean, urte bakoitzeko urtarrilaren 30ean, abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiaren egoera balantzea eta kudeaketa kontua ematea.

Aurrezki kutxa, banketxe eta kreditu etxe edo edozein kontuen irekidurarako **B.F.F.– F.V.F.**aren baimena behar du, presidente eta Arbitroen Eskolaren diru arduradun sinadurak beharko dira, baita **B.F.F. – F.V.F.**ren Zuzendari Batzordeko Diruzainarena, hiru sinaduretatik bik behar dira fondoaren baimenarako.

IV. ATALA

KIROL TEKNIKARIEN ESKOLA

55. ARTIKULUA

1. Kirol Teknikarien Eskola, Euskadiko Futbol Federakundeak Bizkaian duen baimendutako zentro pribatuztat (Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitateak eta Ikerketa Sailaren 2003ko azaroaren 28ko Agindua), Kirol Teknikarien eta Kiroleko Goi Teknikarien titulazioak lortzeko irakaskuntzez arduratzen da, futbolaren eta areto-futbolaren (5) espezialitateetan, legezko arau aplikagarrietan ezarritakoaren arabera.
2. Kirol Teknikarien eskolak, lurralde eskolatzat, beharrezko heziketa ikastaroak antolatu eta beharrezko irakaskuntza emango du, arautu gabeko beste titulazio batzuk lortzeko (adibidez, espezialitate batzuetako monitoreak eta antzekoak).
3. Kirol Teknikarien Eskolako zuzendaria **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak izendatuko du, bertako Presidenteak egindako proposamenaren arabera.
4. Behin izendapena eginda, Eskolako Zuzendariak izateari utziko dio.
5. Idazkaria eta Irakasleoa **B.F.F –F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeak izendatuko ditu, Eskolako Zuzendariaren proposamena entzun ondoren.
6. **B.F.F.–F.V.F.**aren Zuzendaritza Batzordeari hilabete bukaeran guztietan Diruzaintzaren egoera aurkeztea, Sarrerak eta Gastuak zehatuko direlarik. Era berean, urte bakoitzeko urtarrilaren 30ean, abenduaren 31ra bitarteko ekitaldiaren egoera balantzea eta kudeaketa kontua ematea. Aurrezki kutxa, banketxe eta kreditu etxe edo edozein kontuen irekidurarako **B.F.F.–F.V.F.**aren baimena behar du, presidente eta Kirol Teknikarien Eskolako diru arduradun sinadurak beharko dira, baita **B.F.F.–F.V.F.**ren Zuzendari Batzordeko Diruzainarena, hiru sinaduretatik bik behar dira fondoaren baimenarako.

FEDERAZIOAREN BESTE ORGANU BATZUK

B.F.F.-F.V.F.aren organuak dira, baita, honako Batzordeak:

1. 2.B eta Hirugarren maila.
2. Futbol afizionatua.
3. Jubenila eta Kadetea.
4. Emakumezkoen futbola.
- 5 Eskola kirola.
6. Zelaiak.
7. Joko garbia.
8. Aisia.
9. Batzorde/Kirol Teknikarien Eskola harremanak.
- 10.Epaileen Batzordearekin harremanak.
- 11.nformatizazioa.
- 12.Erakunde eta Klubekiko harremanak.
- 13.Epaileen kaptaziorako eremuen dibertsifikazioa.
14. Ibarretako zelaia.
- 15.Zuzendaritza Batzordeak sor dezakeen beste edozein Batzorde. Batzordeetako presidentea Zuzendaritza Batzordeko kide izango da, berak izendatua. Batzordeek honako funtzioak dituzte:
 - a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren aholkularitza-organuak izat.
 - b) Zuzendaritza Batzordeari bere esparruko gai oro proposatzea.

VII. KAPITULUA

KIROL JUSTIZIAREN ORGANOAK

I. ATALA

XEDAPEN OROKORRAK

56. ARTIKULUA

Kirol justizia aplikatzeko funtzioa duten organoak honako hauek dira:

- a) Diziplina Batzordea.

c) Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordea.

57. ARTIKULUA

Futbolaren diziplina araubidea, Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legean orokorrean ezarritakoa, zehapen zuzenbidearen printzipio nagusien arabera garatzen da, bai Kirol Diziplinaren Araudiko urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretuan eta bai garapeneko gainerako arauetan.

58. ARTIKULUA

Kirol diziplinaren ahalaren eremua jokoaren edo lehiaketaren arauen urratzeetara eta kirol jokabidearen urratzeetara hedatzen da; horiek aurreko artikuluan aipaturiko xedapenek tipifikatzen dituzte, bertan adierazitakoaren arabera.

59. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ak diziplina ahala gauzatzen du bere egitura organikoaren barruko pertsona guztien gain, bere klubaren eta kirolariaren, teknikariaren nahiz zuzendariaren gain, arbitroaren gain, eta, orokorrean, **B.F.F.-F.V.F.**ra atxikita egon eta Federakundearen lurralde eremuan funtzioak garatu edo karguak dituzten pertsona edo erakunde guztien gain.

II. ATALA

DIZIPLINA BATZORDEA

60. ARTIKULUA

1. Diziplina Batzordeak diziplina ahala gauzatzen du afiliatu guztien gain, eta halaber, **B.F.F.-F.V.F.**ak antolatutako lehiaketa eta jarduera guztietan gertatzen diren gorabehera edo auzi guztiak ebazten ditu.
2. Diziplina Batzordea Futbol Amateurreko Batzordeak, Emakumeen, Kadeteen nahiz Gazteen Batzordeak eta Areto Futbola zein Hondartzako Futboleko Batzordeak osatzen dute. 6 kide dituzte: Presidenteari bat, bost mahaikide (Zuzenbidean lizentziatuak edo kirol esperientzia handikoak), eta horiek guztiak **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak izendatzen ditu.

3. Diziplina Batzordearen erabakiak gehiengoz hartzen dira, eta egon daitezkeen berdinketak Presidentearen kalitatezko botoarekin ebazten dira; gainera, erabakien aurkako errekurtoa jar daiteke Euskadiko Futbol Federakundeko Apelazio Batzordean.

III. ATALA

JURISDIKZIO ETA ADISKIDETZE BATZORDEA

61. ARTIKULUA

1. Jurisdikzio eta Adiskidetze Batzordeak diziplinazkoak eta lehiaketakoak ez diren alderdi, asmo edo erreklamazio guztiez arduratzen den eta horiek ebazten dituen organoa da, horiek Federakundea osatzen duten pertsona fisikoen edo juridikoen artean edo pertsona horiek sortzen dituztenean.
2. Sei kide goitik jota izango ditu, Presidente bat eta beste guztiak mahaikideak, zuzenbidean lizentziatuak edo kirol esperientzia handikoak, eta horiek ez dira kirol justiziako beste ezein organotan egongo.
3. Jurisdikzio Batzordearen erabakiak gehiengoz hartuko dira eta egon daitezkeen berdinketak Presidentearen kalitatezko botoarekin ebatziko dira; erabakien aurkako errekurtoa jar daiteke Euskadiko Kirol Justiziako Batzordean.
4. Adiskidetze Batzordearen erabakiak gehiengoz hartuko dira eta berdinketak Presidentearen kalitatezko botoarekin ebatziko dira eta kirol bizitza agortuko dute.

VIII. KAPITULUA

ARETO-FUTBOLEKO LURRALDE BATZORDEA

62. ARTIKULUA

1. Areto-futboleko Lurralde Batzordea **B.F.F.-F.V.F.**aren organoa da eta espezialitate hori sustatzeko, kudeatzeko, antolatzeko nahiz zuzentzeko eskumena dauka.
2. Areto-futboleko Lurralde Batzordeko Presidenteak **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak izendatuko du.
3. Areto-futboleko jarduerak lehiaketa eta diziplina ordena berezia izango dute, eta azken ezaugarri hori arbitroen eta entrenatzaileen kasuan ere aplikagarria da.

IV. TITULUA

AFILIATUAK ETA FEDERAZIO ESTAMENTUAK

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

63. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.a kirolarien, teknikarien eta epaileen estamentuek osatzen dute (federazio-lizentzien titularrak), baita Federakundeari atxikitako kirol klubuen eta taldeen estamentuek ere.

64. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ko estamentuek, gutxienez, honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Administrazio eta gobernu organoen ordezkariak edukitzea eta horien barruan egotea, estatutu hauetan eta araudi aplikagarrian ezarritako moduan eta proportzioan.
- b) Federakundeak antolaturiko jarduera guztietan parte hartzea, horrek horretaz ematen dituen arauen arabera.
- c) Eskaturiko informazio guztia jasotzea eta irizpideak nahiz iritziak askatasun osoz adieraztea, federazio-gaiei dagokienez, kirolaren garapen hoberako.
- d) Federazio-organo eskudunetara joatea, federazio-arauak betetzeko eskabidea egiteko.
- e) Bidezko kontsulta eta erreklamazio guztiak egitea, Federakundeko arauak aintzat hartuta.

65. ARTIKULUA

Federakundeko estamentuetako kideek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Ezartzen diren kuotak ordaintzea.
- b) Federazio-organoek harturiko baliozko erabaki guztiak betetzea.
- c) Federakundearen helburuak lortzeko laguntza ematea.
- d) Euren karguen berezko betebeharrak ondo betetzea.

II. KAPITULUA

KIROLARIAK

66. ARTIKULUA

Kirolariak izango dira, estatutu hauetan ezarritakoaren ondoreetarako, federazio-lizentzia nahita sinatzen duten guztiak, futbolaren praktikarako eta lehiaketarako, horren modalitate eta espezialitate guztietan, eta horiek **B.F.F.-F.V.F.**ak kontrolatu eta arautuko ditu.

Biltzar Nagusiak motak edo kategoriak ezarriko ditu, amateurren eta profesionalen arteko oinarrizko bereizketa kontuan hartuta.

67. ARTIKULUA

Kirolari federatuek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a) Kirol lizentzia sinatzea.
- b) Euren lurralde eremuko, komunitateko edo komunitatez gaineko kirol lehiaketetan eta jardueretan parte hartzea, baita Federakundea ordezkatzeko duten guztietan ere.
- c) Osasun laguntza eta sorospena jasotzea, futbolaren praktikan eta horren ondorioz.
- d) Federakundetik askatasunez banantzea.
- e) Klubetarako adierazitakoak.

68. ARTIKULUA

Kirolari federatuek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Euren klubaren partaidetza duten kirol lehiaketetara edo jardueretara joatea.
- b) Federakundeko Diziplina, Araudiak eta Estatutuak betetzea.
- c) **B.F.F.-F.V.F.**ak eta Euskal Selektzioak deituriko probetara eta hautapenetara joatea.
- d) Kuotak ordaintzea.

III. KAPITULUA

TEKNIKARIAK ETA EPAILEAK

69. ARTIKULUA

Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, teknikariak izango dira, titulua eduki eta afiliatuak izanik, espezialitate edo modalitate guztietako futbol taldeak entrenatzeko edo zuzentzeko gaitasuna dutenak.

70. ARTIKULUA

Estatutu hauetan ezarritakoaren arabera, epaileak izango dira, elkargokoak diren edo **B.F.F.-F.V.F.**ak halakotzat onartu dituen arbitro tituludun guztiak, baldin eta funtzio teknikoak eta zuzendaritzakoak garatzeko baimena badute, Federakundeak bere lurralde eremuan antolatzen dituen lehiaketetan, edo, komunitatez gainekoak izan arren, izendapena berak egiten duenean.

IV. KAPITULUA

KLUBAK ETA KIROL ELKARTEAK

71. ARTIKULUA

Estatutu hauetan ezarritakoaren ondoreetarako, klubak nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna duten elkarte pribatu guztiak dira, irabazi asmorik gabeak; euren helburua futbola sustatzea da eta lehiaketa ofizialetan parte hartzen dute.

72. ARTIKULUA

Kirol elkarteak, lehiaketa ofizialetan parte hartu ez arren, irabazi asmorik gabe eratzten dira, jarduera fisikoa eta kirola sustatzeko eta garatzeko:

- a) Ikastetxeetan eta unibertsitateetan.
- b) Edozein elkarte, fundazio, korporazio, sozietate edo erakunde publikoren edo pribaturen atal ofizialak, bertako kideek edo langileek jarduera fisikoa eta kirola egiteko.
- c) Jarduteko gaitasuna duten eta kirol helburuekin elkarturik dauden hiru pertsona natural edo gehiago.

73. ARTIKULUA

Eraketari eta funtzionamenduari dagokionez, klubak eta kirol elkarteak honako hauetan ezarritakoaren arabera arautuko dira: Kirolari buruzko Euskadiko 14/1998 Legea; Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak otsailaren 14an emandako 29/1989 Dekretua, klubak eta kirol elkarteak eraketa eta funtzionamendua arautu duena; horiek garatzen dituzten arauak; estatutu hauek, eta Biltzar Nagusiek eta gainerako organoek harturiko baliozko erabakiak.

74. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko klubak eta kirol elkarteak **B.F.F.-F.V.F.**ra atxikita egongo dira, lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko. Atxikipena urtero berritu beharko da.

75. ARTIKULUA

Klubak eta kirol elkarteek honako eskubide hauek izango dituzte:

- a)** **B.F.F.-F.V.F.**ak antolatzen dituen lehiaketa ofizialetan parte hartzea, baldin eta Federakundeko afiliatuak badira, eta goragoko faseetan parte hartzea, euren sailkapenaren arabera merezimendu hori lortu badute.
- b)** Adiskidetasunezko partidak jokatzeko Espainiako eta atzerriko beste talde batzuekin, beharrezko baldintzak betetzen direnean.
- c)** Organo eskudunetara joatea eta federazio-araudiak nahiz kirol betebeharrak betetzeko eskabidea egitea.
- d)** Organo horiei era guztietako kontsultak edo erreklamazioak egitea, eta federazio-dokumentazioari buruzko informazioa eskatzea.

76. ARTIKULUA

Klubak eta kirol elkarteek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

- a)** Federakundearen kuotak eta eskubideak ordaintzea.
- b)** Federakundeari horrek eskaturiko futbolari guztiak uztea, bere partaidetza duten lehiaketa guztietarako.
- c)** Legez onetsitako eta argitaraturiko arau eta araudi guztiak onartzea, baita federazio-organoen harturiko baliozko erabaki guztiak ere.

V. TITULUA

HAUTESKUNDE ARAUBIDEA

77. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.aren hauteskunde araubidea honako hauetan ezarritakoaren arabera arautuko da: Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko VII. Titulua, hori garatzeko ematen diren xedapenak, estatutu hauek eta hauteskunde araudia.

78. ARTIKULUA

1. Federakundean Hauteskunde Batza egongo da eta horrek hiru kide izango ditu; hauteskunde prozesua sustatu eta horren garapen egokia bermatuko du.
2. Hauteskunde Batzaren funtzioek lau urteko iraupena izango dute; hala ere, Biltzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzak kargutik kendu eta beste bat izendatu ahal izango du, aldi hori amaitu baino lehen.
3. Hauteskunde Batza berriak hurrengo Hauteskunde Batza izendatu arte jarraituko du jardunean.

79. ARTIKULUA

1. Hauteskunde Batzak hiru kide eta hiru ordezeko izango ditu; horiek zuzendaritza Batzak izendatuko ditu justizia batzordeetako kideen artean; Presidentea eta idazkaria ere horien artean izendatuko ditu.
2. Hautagaiak ez dira inoiz ere Hauteskunde Batzaren barruan egongo: izendaturiko Hauteskunde Batzako kideren bat hautagaia izanez gero, horrek kargua utzi eta horren lekua ordezekoak hartuko du.

80. ARTIKULUA

1. Hauteskunde Batzak honako funtzio hauek izango ditu:
 - a) Hautesleen zentsua eta hauteskunde egutegia onestea.
 - b) Aurkeztu diren kandidaturak izendatzea eta argitaratzea.
 - c) Hauteskunde-mahaia izendatzea.
 - d) Hautesleak izendatzea.

- e) Hauteskunde-mahaiaren erabakien aurka aurkezten diren aurkatzeak, erreklamazioak nahiz eskabideak eta jartzen diren errekurtsioak ebaztea.
 - f) Hauteskundeetan eta horien emaitzetan eragin zuzena duten gainerako alderdi guztiak.
2. Hauteskunde Batzak hartzen dituen erabakiak aurkatu egin daitezke Kirol Justiziako Euskadiko Batzordean.

81. ARTIKULUA

Hauteskunde Batzak, hautagaiak izango ez diren hautesleen artean, hiru kide eta hiru ordezkari dituen hauteskunde-mahaia izendatuko du; mahaiburua eta idazkaria zaharrena eta gazteena izango dira, hurrenez hurren.

82. ARTIKULUA

1. Hauteskunde-mahaiak honako funtzio hauek izango ditu:
- a) Bozketen garapen egokia bermatzea.
 - b) Boto-emaitzen nortasuna eta hautesle izaera egiaztatzea.
 - c) Emandako botoen baliozkotasuna erabakitzea.
 - d) Botoen zenbaketa egitea, bozketa amaitu ondoren.
 - e) Bozketari loturiko gainerako alderdi guztiak ebaztea.
2. Hauteskunde-mahaiaren erabakiak aurkatu egin daitezke Hauteskunde Batzan.

83. ARTIKULUA

Hauteskunde prozesuari buruzko gainerako alderdi guztiak hauteskunde araudian arautuko dira; betiere, bermatu egin behar da Federakundeko kirol estamentuetako kide guztiei informazioa ematen zaiela eta horiek federatutzat dituzten eskubideak garatzen dituztela.

VI. TITULUA

ARAUBIDE EKONOMIKOA/FINANTZAKOA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

84. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ak berezko aurrekontu eta ondare araubidea dauka. **B.F.F.-F.V.F.**ak oraingo eta geroko ondasun guztiekin ematen die erantzun ekonomikoa bere betebeharrei.

II. KAPITULUA

BALIABIDE EKONOMIKOAK

85. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**aren ondarea bere titulartasuneko ondasunek osatuko dute.
2. **B.F.F.-F.V.F.**aren baliabide ekonomikoak, besteak beste, honako kontzeptu hauek osatuko dituzte:
 - a) Federatuen kuotak.
 - b) Erakunde publikoek ematen dizkieten dirulaguntzak.
 - c) Dohaintzak, jaraunspenak, legatuak eta sariak.
 - d) Antolatzen dituen kirol jardueren eta lehiaketen irabaziak.
 - e) Egiten dituen industria, merkataritza, lanbide edo zerbitzu jardueren irabaziak.
 - f) Bere ondarearen emaitzak eta horren zergapetzearen nahiz besterentzearen emaitzak, 90. artikuluan ezarritako baldintzekin.
 - g) Lortzen dituen maileguak edo kredituak.
 - h) Espainiako Futbol Federakundeak ematen dizkion aurrekontu zuzkidurak.
 - i) Diziplina ahala garatzearen eraginezko zehapenen, isunen eta halakoen zenbatekoa.
 - j) Bere jarduera garatuz lor ditzakeen gainerako guztiak.

86. ARTIKULUA

1. Zorra eta ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak Federakundeko kideek soilik sinatu ahal izango dituzte, eta horiek edukitzeak ez du euren gaineko inolako eskubiderik emango, indarreko legerian lehenengoetarako ezarritako interesak izan ezik.

2. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak eskualdatzeko modukoak izango dira, Biltzar Nagusiak ezarritako baldintzekin.

87. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ak bere helburuak betetzeko dituen zenbatekoak kreditu nahiz aurrezki erakunde batean edo banketxean sartuko dira, Federakundearen izenean.
2. Horiek erabiltzeko, Presidentearen sinadura ez ezik, diruzainaren sinadura ere beharrezkoa izango da.

III. KAPITULUA

AURREKONTUA

88. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ak ekitaldiko aurrekontua onetsiko du urtero, baita aurreko urteko likidazioa eta balantzea ere.
2. Administrazio organoak aurrekontu proiektua egingo du urtero eta hori Biltzar Nagusiak onetsi beharko du.
3. Aurrekontuan, zifrekin eta modu bateratuan nahiz sistematikoan, aditzera emango dira **B.F.F.-F.V.F.**ak gehienez har ditzakeen betebeharrak eta ekitaldian likidatuko diren eskubideak.
4. Aurrekontua bakarra izango da eta, horren barruan, **B.F.F.-F.V.F.**aren gastu nahiz diru-sarrerara guztiak jasoko dira, bertako organo osagarriak edo erakundeak ere aintzat hartuta. Kudeaketa edo antolaketa beharrianen eraginez ezinbestekoa denean, kontabilitateko azpierakundeak sor daitezke, sistema nagusian integratuta.
5. Aurrekontuak orekatuta onetsiko dira; ezin izango da defizita duen aurrekonturik onetsi, baldin eta kasuan kasuko kirol administrazioaren baimenik ez badago.
6. Aurrekontua eta aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, Biltzar Nagusiaren onespena lortu ondoren, kirolaren arloan eskumena duen Foru Aldundiko organora eramango dira.
7. **B.F.F.-F.V.F.**ko Zuzendaritza Batzak aurrekontu aldaketak erabaki ditzake, Estatutuek horretarako baimena ematen diotenean.
8. Programen arteko kreditu-transferentziek, aurrekontu osoaren %20tik gorakoek, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunaren baimena beharko dute.

89. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**aren aurrekontua, egiturari dagokionez, egokitu egingo da arauz ezartzen diren Kontabilitate Plan Orokorreko egokitzapen arauetara. Bestela, Kontabilitate Plan Orokorrak Espainiako kirol federakundeetara egokitzeko ezarri dituen arauetara egokituko da, eta horiek, berriz, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Kontuen Kontabilitate eta Auditoria Institutuak garatuko ditu.
2. Kirolari profesionalen eta amateurren diru-sarrerak eta gastuak bereizi egingo dira aurrekontuetan.
3. Likidaturiko aurrekontuen ekitaldiko azken soberakina, halakorik egonez gero, hurrengo aurrekontuko diru-sarreratzat jasoko da.
4. Onetsitako ordainketen betearazpen materiala diruzainak egingo du.

90. ARTIKULUA

1. Ekitaldi bakoitza itxi eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, **B.F.F.-F.V.F.**ko administrazio organoak Biltzar Nagusira bidaliko ditu erakundearen urteko kontuak; horien barruan, balantzea, irabazien nahiz galeren kontua eta memoria ekonomikoa sartuko dira.
2. Zuzendaritza Batzak egiten dituen urteko kontuak Presidenteak eta, bestela, diruzainak sinatu beharko ditu.

91. ARTIKULUA

Federakundearen diru-sarrera guztiak, kirol adierazpenetan lorturiko irabaziak eta sarrerak ere barne, baita industria, merkataritza, lanbide edo zerbitzu jardueretan lor daitezkeenak ere, oso-osorik bideratuko dira helburu sozialaren garapenera.

Irabaziak ezin dira inondik inora ere Federakundeko kideen artean banatu.

92. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**ak ondasun higiezinak zergapetu nahiz besterendu, dirua maileguan hartu eta zorraren zein ondarearen zati alikuotaren tituluak jaulki ahal izango ditu, honako baldintza hauek beteta:
 - a) Egintza horiek erakundearen ondarea edo helburu soziala arriskuan ez jartzea, eta hori, berriz, profesional eskudunak emandako irizpenaren bidez justifikatu ahal izango da.
 - b) Egintza horiek Biltzar Nagusian dauden kideen 2/3en gehiengoz baimentzea.
2. **B.F.F.-F.V.F.**aren ondasun higiezinak zergapetzeko edo besterentzeko, horiek eskuratzeko finantziarioa (guztiz edo neurri batean) herri administrazioen fondoekin egiten denean,

beharrezkoa da kasuan kasuko kirol administrazioaren baimena, Biltzar Nagusian aurkeztu baino lehen.

3. Halaber, dirua maileguan hartzeko edo zorraren tituluak jaulkitzeko (**B.F.F.-F.V.F.**aren urteko aurrekontuaren %25etik gorako zenbatekoan), beharrezkoa da kasuan kasuko kirol administrazioaren baimena, Biltzar Nagusian aurkeztu baino lehen.

93. ARTIKULUA

1. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak, **B.F.F.-F.V.F.**ak ematen dituenak, izendunak izango dira.
2. Tituluak 94.1.d) artikuluan ezarritako liburuan inskribatuko dira, eta bertan, eskualdatze guztiak jasoko dira.
3. Titulu guztietan balio izenduna, jaulkitzeko data eta amortizazioaren interesa nahiz epea adieraziko dira.
4. Ezin izango da inoiz ere askaturiko tituluen jaulkipenik egin.
5. Kasuan kasuko kirol administrazioak zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak jaulkitzeko baldintzak ikuskatuko ditu, horiek Biltzar Nagusiari aurkeztu baino lehen, horrek onespena egiteko. Jaulkipenaren baldintzak aztertu eta indarreko legeria urratu egin dela ikusten bada, administrazioak **B.F.F.-F.V.F.**ari itzuli egingo dio jaulkipen proposamena. Urratzea zuzendu ondoren, berriro aurkeztuko da onespenerako.
6. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak Federakundeko kideek soilik sinatu ahal izango dituzte, eta horien jabetzak ez du euren gaineko eskubide berezirik emango, indarreko legerian ezarritako interesak izan ezik.
7. Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazten duten tituluak eskualdatzeko modukoak izango dira, Biltzar Nagusiak ezarritako baldintzekin.

94. ARTIKULUA

Zuzendaritza Batzak balantzea aurkeztuko du ohiko Biltzar Orokorrean; bertan, partidak, defizita, superabita edo oreka adieraziko ditu. Urte ekonomikoa urtarrilaren 1ean hasi eta abenduaren 31n amaituko da.

B.F.F.-F.V.F.ak kontabilitate liburuak eramango ditu, estatutu hauetako 94.1 c) artikuluan ezarritakoak, baita beharrezko liburu laguntzaile guztiak eta arlo honetan indarrean dagoen legeriaren arabera ezinbestekoak diren guztiak ere.

95. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.a Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 144. eta hurrengo artikuluetan ezarritako auditoria araubideari lotu beharko zaio.

VII. TITULUA

DOCUMENTU ARAUBIDEA

I. KAPITULUA

FEDERAKUNDEAREN LIBURUAK

96. ARTIKULUA

1. B.F.F.-F.V.F.ak, gutxienez, honako liburu hauek eramango ditu nahitaez:

- a)** Federazio-estamentuen liburua, bost ataletan banatuta: klubena nahiz kirol elkarteena, kirolariena, teknikariena, epaileena eta beste talde batzuenak. Horren barruan, euren zerrenda gaurkotua eta alta nahiz baxa hartzeko data jasoko dira.
- b)** Federakundearen akta liburua; bertan, Federakundeko Biltzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzak harturiko erabakiak egongo dira jasota.
- c)** Kontabilitate liburuak, eta bertan, Federakundearen diru-sarrerak eta gastuak adieraziko dira.
- d)** Zorra edo ondarearen zati alikuota adierazteko tituluen erregistro liburua. Liburu horietarako eginbideak Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Elkarten Erregistroan egingo dira.

2. Liburu horiek beste xedapen batzuen ondoriozko betebeharren kalterik gabe eramango dira.

3. Liburuak kirol arloan eskumena duen organoak legeztatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakundearen Erregistroaren arauetan ezarritakoaren arabera.

II. KAPITULUA

FEDERAKUNDEAREN ARAUDIAK

97. ARTIKULUA

B.F.F.-F.V.F.ak, gutxienez, hauxe arautuko du:

- a) Lehiaketen antolaketa eta garapena arautzen duten arauak.
- b) Diziiplina araubidea.
- c) Hauteskunde araubidea.
- d) Gatazkak epaiketa barik konpontzeko araubidea.
- e) Lizentzien araubidea.

98. ARTIKULUA

1. Federazio-araudiak Bizkaiko Foru Aldundiko Sail egokian aurkeztu behar dira onesteko; horretarako, hirurogei eguneko epea egongo da, Biltzar Nagusiak onesten dituenetik zenbatzen hasita.
2. Araudi horiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko dira, Euskadiko Erakundearen Erregistroak eskaturiko euskarri informatikoan.
3. Organo eskudunak araudien administrazio onespenera egingo du, hiru hilabeteko epean, eskabidea erregistroan sartzen denetik zenbatzen hasita.
4. Federazio-araudiak eta horien aldaketak (administrazio onespeneraren ostean) Euskadiko Kirol Elkartearen Erregistroan inskribatuko dira.
5. Federazio-araudien indarraldia horien onespeneraren eta, gero, Euskadiko Kirol Elkartearen Erregistroan inskribatzearen baldintzapean egongo da. Araudi horiek ondoreak izango dituzte inskripzio hori egiten denetik, bai federatuentzat eta bai gainontzekoentzat eta erakundeentzat. Administrazio onespenera arte, federazio-araudiak inolako eraginkortasunik gabeko proiektuak dira.

VIII. TITULUA

DIZIPLINA ARAUBIDEA

99. ARTIKULUA

- 1.- **B.F.F.-F.V.F.**aren diziiplina araubidea honako hauetan ezarritakoaren arabera arautuko da: Euskadiko Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko X. titulua, Kirol Diziplinaren Araubidea arautu duen urtarrilaren 10eko 7/1989 Dekretua, estatutu hauek eta Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina Araubidea.
- 2.- **B.F.F.-F.V.F.**ak diziiplina ahala aplikatzen die antolaketa-egitura osatzen duten pertsona guztiei, klubei zein horien kirolariei, teknikariei nahiz zuzendariei, arbitroei eta, orokorrean,

B.F.F.-F.V.F.an atxikita egonik, Bizkaiko lurralde eremuan funtzioan garatu edo karguak dituzten guztiei.

3.- B.F.F.-F.V.F.ak ez du diziplina ahalik aplikatuko beste lurralde eremu batzuetako eta kirol modalitate bereko federakundeetako kideen kasuan, horien jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoaren eremuan garatu arren. Pertsona horiei, hala eta guztiz ere, federakunde antolatzailearen joko edo lehiaketa arauak aplikatu ahal izango zaizkie.

IX. TITULUA

DESEGITEA ETA LIKIDAZIOA

100. ARTIKULUA

- 1) **B.F.F.-F.V.F.** a Biltzar Nagusi bereziak harturiko erabakiz desegingo da, estatutu hauetan ezarritako baldintzekin edo gehiengoekin, edo bestela, epailearen erabakiz desegingo da. Biltzar Nagusiaren erabakiaren aurretik ez da hurrengo atalean ezarritako zergatirik egon beharko.
- 2) **B.F.F.-F.V.F.**a honako zergati hauen eraginez desegingo da:
 - a) **B.F.F.-F.V.F.**aren onarpen ofizialaren ezeztapena, hori araubide orokorreko elkarte bihurtzen denean izan ezik.
 - b) Administrazio funtzio publikoak ondo betetzeko ezintasun nabaria.
 - c) Federazio-organoak geldiaraztea, funtzionamendua ezinezkoa izateko moduan.
 - d) Emandako funtzio publikoak ez betetzea.
 - e) Beste kirol federakunderen batekiko bat-egitea.
 - f) Beste kirol federakundearen batean sartzea.
 - g) Indarreko legerian ezarritako beste edozein zergati.

101. ARTIKULUA

1. Presidenteak Biltzar Nagusirako deialdia egingo du, horrek desegiteko erabakia hartzeko, bi hilabeteko epean, desegitea eragin duen zergatia dagoela jakin duenetik zenbatzen hasita.
2. Federatuek eta kirol administrazio eskudunak ere eskabidea egin ahal izango diote Presidenteari, Biltzar Orokorrerako deialdia egiteko, baldin eta aurreko artikuluko bigarren atalean aipaturiko edozein zergati badago.
3. Biltzar Nagusirako deialdia egiten ez bada, edo erabakirik lortu ezin izanez gero, edo erabaki hori desegitearen aurkakoa izatekotan, Federakundearen desegitea judiziala eskatu ahal izango da.

4. **B.F.F.-F.V.F.**ko administrazio organoak desegite judiziala eskatu beharko du, federazio-erabakia desegitearen aurkakoa denean edo hori lortu ezin denean.
5. Administrazio organoko kideek, Biltzar orokorrerako deialdia (desegitea erabakitzeko) bi hilabeteko epean egiteko ardura urratzen dutenek, erantzukizun solidarioa izango dute, edo desegite judiziala bi hilabeteko epean eskatzen ez dutenek, Biltzar Nagusirako ezarritako egunetik zenbatzen hasita, hori eratzen ez denean, edo Biltzar Nagusiaren egunetik zenbatzen hasita, erabakia desegitearen aurkakoa izanez gero.

102. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**a desegin ondoren, likidazio aldia irekiko da, bat-egitea dagoenean edo desegindako federakundearen aktiboaren nahiz pasiboaren lagapen orokorra dagoenean izan ezik.
2. **B.F.F.-F.V.F.**a desegin ondoren, horrek nortasun juridikoa mantenduko du likidazioan dagoen bitartean. Fase horretan, bere izenari "likidazioan" hitza gehitu beharko dio.
3. **B.F.F.-F.V.F.**a likidazioan dagoen unetik, administrazio organoak laga egingo ditu bere funtzioak, eta funtzioak likidatzaileek eskuratuko dituzte. Hala eta guztiz ere, administrazio organoko kideek laguntza emango dute likidazio eragiketak egiteko.
4. Federazio-ondarearen likidaziorako, likidazio batzordea izendatuko da eta horrek bost kide izango ditu, berak izendatuta; Presidentea **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidentea izango da eta horrek idazkariaren nahi diruzainaren laguntza izango du.
5. Likidatzaileen izendapena eta kargu-uztea Euskadiko Kirol Elkartearen Erregistroan inskribatu beharko da.

103. ARTIKULUA

1. Federakundeko likidatzaileen funtzioak:
 - a) Administrazio organoarekin batera, **B.F.F.-F.V.F.**aren hasierako balantzea sinatzea, funtzioak egiten hasten denean.
 - b) **B.F.F.-F.V.F.**aren liburuak nahiz posta eramatea eta zaintzea, eta ondarearen osotasuna babestea.
 - c) Egiteko dauden eragiketak eta **B.F.F.-F.V.F.**aren likidaziorako behar direnak egitea.

- d) Federakundearen ondasunak eta eskubideak besterentzea. Ondasun higiezinak enkante publikoan saldu behar dira. Salmenta zuzena, berriz, kirol administrazio eskudunak baimendutako kasuetan soilik egin daiteke.
- e) Transakzioak eta arbitrajeak hitzartzea, Federakundearen interesetarako komenigarria denean.
- f) Hartzekodunei ordaintzea.
- g) **B.F.F.-F.V.F.**aren ordezkartza egitea.

- 2. Likidatzaileek erantzukizuna izango dute **B.F.F.-F.V.F.**an, bertako kideen aurrean eta gainontzekoen edo erakundeen aurrean, kargua betetzean izandako dolo edo zabarkeria larriaren eraginez sortzen duten edozein kalterengatik.
- 3. Likidazioa amaitu ondoren, likidatzaileek azken balantzea eratuko dute eta hori Biltzar Nagusiak onetsi beharko du; gero, kirol administrazio eskudunera bidaliko da.

104. ARTIKULUA

- 1. Kirol administrazio eskudunak likidazioa kontrolatzeko ardura izango duten pertsonak izendatu ahal ditu, indarreko araudian ezarritakoa betetzeko.
- 2. **B.F.F.-F.V.F.**an administrazio organorik egon ezean edo horrek bere funtzioak uzten baditu, kasuan kasuko kirol administrazioak likidatzaileak izendatu ahal izango ditu.

105. ARTIKULUA

Likidazioen funtzioak honako hau eginez amaituko dira:

- a) Likidazioa egitea.
- b) Biltzar Nagusiak emandako ahalmenak ezeztatzea.
- c) Kasuan kasuko kirol administrazioak ahalmenak ezeztatzea edo ezgaitzea.
- d) Epailearen agindua egotea.

106. ARTIKULUA

- 1. **B.F.F.-F.V.F.**ak kaudimenik eduki ezean, likidatzaileek bidezko lehiaketa adierazpena eskatu beharko dute berehala.
- 2. **B.F.F.-F.V.F.**a deseginez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunak erabakiko du likidazioaren eraginezko ondareari eman beharreko aplikazioa; hala ere, futbol modalitatearen sustapenak eta gauzapenak lehentasuna izango du.

X. TITULUA

ESTATUTUEN ONESPENA ETA ALDAKETA

107. ARTIKULUA

1. **B.F.F.-F.V.F.**aren Estatutuak onesteko eta aldatzeko, honako prozedura hau erabiliko da:
 - a) Federakundeko zerbitzu juridikoek aurreproiektuaren zirriborra egingo dute, lege ezarritako oinarriekin.
 - b) Zirriborrea egin ondoren, Zuzendaritza Batzara bidaliko da, horrek bere txosten arrazoitua emateko.
 - c) Onespena lortu ondoren, testua bidaliko zaie, banan-banan, Biltzar Nagusiko kide guztiei, eta gutxienez hamabost eguneko epea emango zaie, bidezko zuzenketa edo iradokizun guztiak modu arrazoituan formulatzeko.
 - d) Biltzar Nagusirako deialdia egingo da, horrek onespena egiteko, proposaturiko testua eta aurkezturiko zuzenketa (halakorik egonez gero) eztabaidatu ondoren.
 - e) Bidezko onespenaren ostean, erabakitakoa Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunera bidaliko da, onespena egiteko eta BAO n argitaratzeko, egutegiko hirurogei eguneko epean.
 - f) Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan aurkeztuko dira, Euskadiko Kirol Elkartearen Erregistroan inskribatzeko.
2. Estatutuak aldatzeko prozesua, legeak hala aginduta egiten denean izan ezik, **B.F.F.-F.V.F.**ko Presidenteak edo Zuzendaritza Batzako kideen bi herenek proposatuta egingo da.
3. Estatutuak onesteko eta aldatzeko, Biltzar Nagusi bereziaren erabakia beharko da eta erabaki hori bileran dauden kideen 2/3ek hartu beharko dute.

BESTE XEDAPEN BATZUK

XEDAPEN GEHIGARRIA

Estatutu hauetan ezarritako epeak, aurkakorik xedatu ezean, egutegiko egunetan zenbatuko dira.

INDARGABETUTAKO XEDAPENA

Indargabeturik geratuko dira indarrean egon diren Bizkaiko Futbol Federakundeko estatutuak izena eman edo argitaratzen diren arte.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek Bizkaiko Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean (BAO) argitaratu eta biharamunean sartuko dira indarrean.

I ANEXUA

BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESTATUTUAK

Euskal Herriko Kirol Federakundea eta Elkarteen Erregistroan 86.04.04an, 73 zb.arekin erregistratuta dagoen BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN Estatutu berriak, 2007ko maiatzak 30 asteazkeneko 106.zk duen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

2006ko uztailaren 13n egindako BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN Ez Ohizko Asanblada Nagusiak ontzat eman zuen Estatutuen aldaketa.

Estatutuen aldaketa ekainaren 11ko 14/1998 Euskadiko kirolaren Legearen eta urtarrilak 31ko 16/2006 Euskal Federakundearen Dekretuaren aginduekin bat dator.

Euskal Jaurlaritzako Kirol Entitateen Erregistroan ere inskribatzen da, **BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESTATUTUEN ALDAKETA**, Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 17aren 307/2017eko Foru Aginduan onartutakoa.